

**GIZABURUAGAKO (BIZKAIA) PILOTALEKUA
BIRGAITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO KONTRATUA
ETA, HALA BADAGOKIO, DAGOKION OBRA-
ZUZENDARITZA ESLEITZEKO EPAIMAHAIAREN
ESKU-HARTZEAREKIN EGINDAKO PROIEKTU-
LEHIAKETAREN OINARRIAK**



AURKIBIDEA

I.- AURREKARIAK ETA PILOTALEKUAREN EGUNGO EGOERA

II.- XEDEA ETA XEDAPEN OROKORRAK

- 1.- KONTRATUAREN XEDEA
- 2.- ARAUBIDE JURIDIKOA
- 3.- KONTRATAZIO-ORGANOA
- 4.- EPAIMAHAIA
- 5.- SARIAK
- 6.- BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
ETA KONTRATUAREN PREZIOA
- 7.- KREDITUA IZATEA
- 8.- KONTRATUAREN IRAUPEN-EPEA
- 9.- PUBLIZITATEA
- 10.- BERMEAK

III.- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LEHIAKETAN ONARTZEKO ESKAKIZUNAK

- 11.- LEHIAKIDEAK
- 12.- LEHIAKIDEEN KAUDIMEN-BALDINTZAK

IV.- PROZEDURA ETA ESLEIPENA

- 13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA
- 14.- IRIZPIDEAK ETA BALORAZIO-FASEAK
- 15.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
- 16.- ANONIMATUA
- 17.- PROPOSAMENAK IREKITZEA
- 18.- LEHIAKETAREN ESLEITZEA ETA SARI-EMATEA
- 19.- KONTRATUA FORMALIZATZEA
- 20.- ORDAINTZEKO MODUA
- 21.- ZERBITZU-EMATEAREN KONTRATAZIO-BALDINTZAK
- 22.- JABETZA INTELEKTUALA
- 23.- JENDAURREAN JARTZEA
- 24.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA

ERANSKINAK

GIZABURUAGAKO (BIZKAIA) PILOTALEKUA BIRGAITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO KONTRATUA ETA, HALA BADAGOKIO, DAGOKION OBRA-ZUZENDARITZA ESLEITZEKO PROIEKTU-LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA.

I.- AURREKARIAK ETA PILOTALEKUAREN EGUNGO EGOERA.

Gizaburuagako egungo pilotalekua 1960. urtekoa da. 1980. urtean, estaltze eta eraberritze lanak egin ziren, eta gaur egun duen forma eman zitzaion. Bolumena erdi lurperatuta dago, malda handiko mazelaren kontra konfiguratuta.

Kantxa txikiko pilotalekua da, eta hezetasunak ditu estalkian eta alboko horma luzean. Kantxa ez dago oso babestuta eta kontrakantxa estua da.

Duela gutxi, 2018an, errebotearen atzeko komunaren eta aldagelen bolumena eraitsi da (atzeko horma). Zaharkituta eta funtzionaltasunik gabe zeuden, eta ez da beharrezkoa izango etorkizunean ezartzea, beste eraikin batean kokatuta baitaude.

Frontiseko hormaren estradosaren gainean, plazarantz, Angel Lertxundi eskultorearen horma-eskultura bat dago; egun dagoen lekuan mantendu nahi da, baina beste leku bat proposatuz gero, eskulturaren egilearekin adostuta aldatu beharko litzateke.

Hegoaldeko atzealdean zizelkatutako hilarri bat dago; nahitaez mantendu beharreko babes-maila du, baina birkoka liteke.

Ipar-ekialdeko izkinan rokodromoa dago, eta hasiera batean mantendu egingo da.

II.- XEDEA ETA XEDAPEN OROKORRAK

1.- XEDEA

1.1.- Epaimahaiaren esku-hartzea duen proiektu-lehiaketa honen helburua da Gizaburuagako pilotalekua birgaitzeko proposamenik onena hautatzea, helburuetara eta arkitektura-kalitatera, iraunkortasunera eta genero-ikuspegiko irizpideetara egokitzeari dagokionez, bai eta lehen saria lortzen duen lizitatzaileri obra-proiektua idazteko zerbitzuak eta, azkenean Udalak obra egitea erabakitzen badu, obren zuzendaritza kontratatzea ere.

1.2.- Udalak obrak egitea onartzen eta kontratatzen badu soilik kontratatuko da zuzendaritza fakultatiboa. Udalak obrak ez egitea erabakiko balu, zerbitzuak emateko esleipendunak oinarritzko proiektua eta exekuzio proiektua aurkeztu beharko litzuzke, eta

ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obren zuzendaritza fakultatiboa ez kontratatzeagatik.

1.3.- Kokalekua, ingurunearen deskribapena eta aplikatu beharreko hirigintza-parametroak baldintza teknikoen agirian ageri dira.

1.4.- Prestazioa baldintza-agiri honetan eta horren parte den Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako baldintzetara egokituko da, eta kontratu-izaera izango dute. Baldintza Teknikoen Agirian eta Administrazio Klausula Berezien Agirian ezarritakoaren artean desadostasunik egonez gero, azken horretan xedatutakoa nagusituko da.

1.5.- Proiektu-lehiaketaren helburua da Gizaburuagako pilotalekuaren birgaitzearen definizio kontzeptuala, helburuetara egokitzea eta kalitate arkitektonikoa. Hiri-ingurunearekin lotutako eskakizun funtzionalak, adierazgarriak eta estetikoak hobekien ebazten dituen diseinua hautatu nahi da, agiri honetan adierazitako epeen eta aurrekontu-mugaren barruan.

1.6.- Gizaburuagako pilotalekua birgaitzeko aurkeztutako aurreproiektuek eta proiektuek ezin izango dute gainditu 625.000 euroko exekuzio materialeko aurrekontua. Lehiakideek proiektatutako obren aurrekontua 899.938 eurokoa izango da gehienez, eta aurrekontu horrek kontratazio-prezioa, gastu orokorrak eta mozkin industrialak baino ez ditu barne hartzen, balio erantsiaren gaineko zerga barne. Proiektuak agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian jasotako eskakizunak bete beharko ditu. Ezarritako parametroak ez betetzeak, ezarritako aurrekontu-muga barne, proposamena baztertzea ekarriko du, bideraezintzat joko baita.

1.7.- CPV kodea:

71200000-0 Arkitektura-zerbitzuak eta horiei lotutakoak

71220000-6 Arkitektura-diseinuko zerbitzuak

71221000-3 Eraikinetarako arkitektura-zerbitzuak

71223000-7 Eraikinen handitze-lanetarako arkitektura-zerbitzuak

71242000-6 Proiektuak eta diseinuak egitea, aurrekontuak

1.8.- Gauzatze-tokia (NUTS kodea): ES213

1.9.- Kontratu hau lote bakarrekoa da, SPKLren 99.3 artikuluan xedatutakoaren arabera eta kontratuaren izaera eta xedea kontuan hartuta.

1.10.- Kontratazio-organoak lehiaketa esleitu gabe utzi ahal izango du, baldin eta epaimahaiak uste badu aurkeztutako proposamenez ez dituztela lehiaketaren helburuak betetzen; kasu horretan, lehiakideek ez dute kalte-ordainik jasoko.

2.- ARAUBIDE JURIDIKOA

2.1.- Proiektu-lehiaketa SPKLren 183.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera esleitzeko deitzen da, zerbitzu-kontratu bat esleitzeko prozedura baten esparruan antolatutako partaidetza-primak dituzten proiektu-lehiaketa motari erantzunez. Irabazletzat jotzen den lehiakideari Gizaburuagako pilotalekua birgaitzeko obren oinarritzko proiektua

idazteko eta obrak gauzatzeko enkargua esleituko zaio, bai eta, hala badagokio, obren zuzendaritza fakultatiboa ere, oinarri hauetan adierazitako moduan.

2.2.- Zerbitzu-kontratuak izaera administratiboa du, eta honako hauetan ezarritakoaren arabera arautuko da: Baldintza Teknikoen Agiria; azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL); urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legea (APKLEO) onartzen duena; eta Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duten eta horren eremuan aplikagarriak diren beste xedapen guztiak.

2.3.- Epaimahaiaren esku-hartzea duen proiektu-lehiaketa hau prozedura ireki bidez garatuko da, parte-hartzaile kopurua mugatu gabe. Bi fasetan egingo da hautaketa: ideiei dagokienez, lehenengoa, eta aurreproiektuari dagokionez, bigarrena. Lehenengo fasean, parte hartzen duten hautagaiek Gizaburuagako pilotalekuaren birgaitzeari buruzko ideia zehatz bat aurkeztu beharko dute, eta epaimahaiak balioetsiko du, Agiri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera. Bigarren fasean, aukeratutako parte-hartzaileak beren proiektu-proposamenak aurkeztera gonbidatuko dira, aurkeztutako ideiak garatze aldera.

2.4.- SPKLren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua ez dago erregulazio harmonizatuaren mende, bere balio zenbatetsiak ez baitu 214.000 euroko muga gainditzen.

2.5.- Kontratazio-organoak ebatziko ditu kontratuaren interpretazioari, aldaketari eta suntsiarazpenari buruz sortzen diren auziak, bai eta horren ondorioak ere. Kontratazio-organoak hartutako erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta berehala betearaztekoak izango dira. Berraztertze errekurtsoa jar dakiok, nahi izanez gero, kontratua eman zuen organoari berari, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedatutakoaren arabera.

3.- KONTRATAZIO-ORGANOA

SPKLren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, alkateari dagokio kontratazio hau egiteko eskumena.

4.- EPAIMAHAI

4.1.- SPKLren 187. artikuluan xedatutakoaren arabera, lehiaketan parte hartzen duten pertsonetatik independenteak diren honako hauek osatuko dute epaimahaia, eta pertsona guztien bi hereneko ordezkariak, gutxienez, lehiaketan parte hartzeko eskatzen den lanbide-kualifikazioaren baliokidea edo berdina edukiko du:

Presidentea: Alkatea edo horrek eskuordetutako pertsona.

Kideak:

1. Markel Okamika Mendiguren zinegotzia edo horrek eskuordetutako pertsona.
2. Udal arkitektoa.
3. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak izendatutako lau arkitekto edo horrek eskuordetutako arkitektoak.
4. Idazkaritza.- Udal idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

4.2.- Epaimahaiaren eginkizunak izango dira:

- a. Dokumentazioa aztertzea eta jasotako lanak behin betiko onartzea.
- b. Dokumentazioa aztertzeko erabili behar den anonimotasun zorrotza zaintzea eta betetzea.
- c. Onartu gabeko lanak baztertzeko proposamen arrazoitua aktan jasoko da, eta, besteak beste, hauek izan daitezke:
 - Epez kanpo edo oinarri hauetan ezarritakora egokitu gabe entregatzea.
 - Proposamenak behar bezala baloratzeko dokumentazio nahikorik ez izatea.
 - Anonimotasuna urratzea, dela egiletza edozein bide erabiliz jakinarazi duelako, dela proposamenaren egilearen nortasuna identifikatzeko elementu grafikoak aurkeztu dituelako.
 - Epaimahaikideei presio egiteko edozein saiakera.

4.3.- Proposamenak aurkezteko epea amaituta, epaimahaia eratuko da, kontratazio-mahaiak esku hartu gabe. Epaimahaiaren erabakiak hartzeko, kideen bi hereneko quoruma beharko da gutxienez; lehiaketaren epaia bertaratutako epaimahaikideen gehiengo soilez hartuko da, eta erabakia kontratazio-organoari helaraziko dio, horrek lehiaketa irabazle gisa proposatutako parte-hartzaileari esleitu diezaion.

4.4.- Idazkariak Epaimahaiak egindako bilkuren akta egingo du. Lehiaketaren epaia eman arte, epaimahaiko kideek isilpean gorde beharko dute eztabaiden edukia.

4.5.- Lehiaketa esleitu ondoren, kontratazio-organoak zerbitzu-kontratua irabazleari esleitzeko prozedura hasiko du, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

5.- SARIAK

5.1.- Ideien lehen fasean, gutxienez hiru (3) proposamen eta gehienez bost (5) proposamen hautatuko dira, ondoen baloratutakoak, eta aurreproiektuak aurkezteko bigarren fasera igaroko dira.

Aurkeztutako aurreproiektu bakoitzari 2.000,00 euro ordaintzea aurreikusten da bigarren fasean. Hautatutako lehenak proiektua idazteko zerbitzu-kontratuagatik eta, hala badagokio, zuzendaritza fakultatiboagatik jaso beharreko zerbitzu-sarien aurrerapen gisa jasoko du zenbateko hori.

5.2.- Hautatutako ideia-proposamenek sari bat jasoko dute, baldintza hauen arabera:

a) Parte-hartze sariak:

Lehen fasean ez da inolako saririk aurreikusten parte-hartzaileentzat.

Bigarren fasean, irabazlea Gizaburuagako pilotalekua birgaitzeko proiektuaren idazketarako eta, hala badagokio, zuzendaritza fakultatiborako zerbitzuak emateko kontratuaren esleipendun izango dela aurreikusten da, eta fase horretan finalista gisa hautatutako beste lehiakideek, irizpide kualitatiboen puntuazioaren %50eko atalasea gainditu behar izango dutenek, 2.000 euroko saria jasoko dute (BEZa kanpo). Kontzeptu horren zenbatekoa 8.000 eurokoa da printzipalagatik, eta 1.680 eurokoa, BEZagatik.

b) Zerbitzu-kontratuaren prezioa:

Oinarrizko proiektua, egikaritze-proiektua eta obra-zuzendaritza (arkitektoa) barne hartzen dituen zerbitzu-sarien zenbatekoa 56.000 eurokoa da printzipalari dagokionez, gehi 11.760 eurokoa BEZari dagokionez (%21ekoa); 67.760 eurokoa da guztira, BEZa barne. Udalak erabakitzen badu obra-zuzendaritza (arkitektoa) ez kontratatzea, oinarrizko proiektuaren eta egikaritze-proiektuaren zerbitzu-sarien zenbatekoa 39.200 eurokoa gehi %21eko BEZa (8.232 euro) izango dira, eta kalkulaturako ordainsariak 47.432 eurokoak izango dira gehienez, BEZa barne.

5.3.- Zerbitzuak emateko kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da, eta ezingo du gainditu Udalak ezarritako lizitazio-tasa. Ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak barne hartzen ditu enpresa kontratistak prestazioa normaltasunez gauzatzeko egin behar dituen zuzeneko edo zeharkako gastu guztiak.

5.4.- Kontratu enpresa kontratistaren arrisku eta menturaren arabera gauzatuko da, eta ez dira prezioak berrikusiko.

6.- BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

6.1 Kontratuaren balio zenbatetsia 77.440 eurokoa da (BEZa barne), zerbitzu-kontratuaren balio zenbatetsia eta parte-hartzaileei egin ahal zaizkien balizko ordainketak kontuan hartuta.

6.2 Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 67.760 eurokoa da (BEZa barne). Printzipalaren zenbatekoa 56.000 eurokoa da eta 11.760 euro, BEZa (%21), eta honela banakatzen da:

Sarien zenbatekoa guztira..... 9.680 euro
Zerbitzu-kontratuaren balio zenbatetsia..... 67.760 euro

GUZTIRA 77.440 EURO

7. KREDITUA IZATEA

7.1.- Gizaburuagako Udalak kreditu nahikoa du kontratu honetatik eratorritako betebeharrei erantzuteko, eta **342/622.01** aurrekontu-partidaren kargura finantzatu da.

7.2.- Lizitazio hau esleipen-fasera arte izapidetuko da, eta fase hori etenda geratuko da, baldin eta une horretarako ez badira egin kreditu egokia eta nahikoa egoteko beharrezkoak diren aurrekontu-eragiketak.

8.- KONTRATUAREN IRAUPEN-EPEA

8.1.- HILABETE BATEKO epea ezartzen da, ideiak aurkezteko lizitazio-iragarkia organo kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik hasita. Proposamenak hautatu ondoren, hautatutako hautagaiak argitaratu eta HILABETE BATEKO epean aurreproiektuak aurkezteko gonbita egingo zaie.

8.2.- Zerbitzu-kontratua sinatzen denetik gehienez ere BI HILABETEKO epea ezartzen da oinarrizko proiektua entregatzeko. Aurkeztutako dokumentazioa udal zerbitzu teknikoek berrikusiko dute, eta udal txosten teknikoak jasotzen direnetik gehienez ere HAMABOST EGUNEKO epean aurkeztu beharko dute behin betiko dokumentazioa, aldaketak egiteko edo dokumentazio osagarria aurkezteko eskakizuna jasotzen badute.

8.3.- Egikaritze-proiektua idazteko, gehienez ere HIRU HILABETEKO epea ezartzen da, udalak egikaritze-proiektua aurkezteko errekerimendua jakinarazten duenetik zenbatzen hasita. Aurkeztutako dokumentazioa udal zerbitzu teknikoek berrikusiko dute, eta behin betiko dokumentazioa udal txosten teknikoak jaso eta gehienez HILABETE BATEKO epean aurkeztu beharko dute, aldaketak edo dokumentazio osagarria eskatzen bazaie.

8.4.- Obren zuzendaritza fakultatiboaren zerbitzua emateko kontratuak 24 HILABETEKO iraupena izango duela aurreikusten da, zerbitzuak emateko kontratua esleitzen denetik zenbatzen hasita, obrak gauzatzeko kalkulatuak gehieneko epea.

9.- PUBLIZITATEA

9.1.- Lehiaketaren deialdia Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman (<https://www.contratacion.euskadi.eus>), SPKLren 186. artikuluan ezarritakoaren arabera. Interesdunek kontratatzailearen profilean aztertu ahal izango dituzte pleguak eta dokumentazio osagarria.

9.2.- Kontsultak posta elektronikoz erantzungo dira:
idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

10.- BERMEAK

10.1.- SPKLren 106. artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

10.2.- Prozeduraren ezaugarriak kontuan hartuta, ez zaio behin betiko bermerik eskatuko lehiaketaren irabazleari, baina zerbitzuak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez emateko kontratazioan, zerbitzua esleitzen den aurrekontuaren %5eko behin betiko bermea eskatuko zaio.

III.- ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LEHIAKETAN ONARTZEKO ESKAKIZUNAK.

11.- LEHIAKIDEAK

11.1.- Lehiaketa honetara aurkeztu ahal izango dira, beren kabuz edo behar bezala baimendutako ordezkarien bidez, SPKLren 65. artikulutik 70.era bitartekoetan aurreikusitakoaren arabera jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoak, espainiarrak edo atzerritarrak, baldin eta ez badaude lege horren 71. artikuluan ezarritako kontratatze debekuen arrazoietan sartuta proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, ez eta lehiaketaren epaia ematen denean ere, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatuz gero.

11.2.- Proiektua idazten dutenek goi mailako arkitekto titulua eduki beharko dute, eta legez gaituta egon beharko dute lanbidean jarduteko. Lehiaketaren xedearekin bat datozen helburu sozialak dituzten pertsona juridikoek parte hartzea onartzen da, baldin eta taldeko zuzendaria edo lanak zuzentzeko arduraduna goi mailako arkitektoa bada.

11.3.- Eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenek banaka edo diziplina anitzeko taldeak osatuz parte hartu ahal izango dute. Parte-hartzaile bakoitzak talde bakar batean parte hartu ahal izango du, bai titular gisa bai laguntzaile gisa, eta proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Puntu hori betetzen ez bada, parte-hartzaile hori parte duten proposamen guztiak deskalifikatuko dira. Lehiaketan ez onartzeko arrazoi izango da, halaber, hainbat lehiakidek talde tekniko bera edo talde horretako kide bera aurkeztea.

11.4.- Ezin izango dute lehiaketan parte hartu zehaztaperen teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten parte hartu duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia askea murrizten badu edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

11.5.- Lehiaketan parte hartzeko baldintzak ez betetzeak lehiaketatik kanpo geratzea ekarriko du, eta, hala badagokio, esleitu ahal izan den saria jasotzeko eskubidea galduko da.

11.6.- Ezin izango dute parte hartu epaimahaiko kide izandako arkitekto edo taldeko beste kide batzuek, epaimahaikideekin laugarren mailako ahaidetasun edo odolkidetasun-harremana, edo bigarren mailako kidetasuna dutenek, edo haiekin zerbitzu-harremana edo lankidetzaren profesionala dutenek.

11.7.- Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoko pertsona fisiko edo juridikoek SPKLren 68 eta 84.3 artikuluetan eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte; era berean, esleipendun

izanez gero, sukurtsala ireki beharko dute Espainian, beren eragiketetarako ahaldunak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko dute. Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatueta enpresek (edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu dutenek) SPKLren 67. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

11.8.- Aldi baterako enpresaburu-elkarteek SPKLren 69. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute. Oinarri hauek arautzen duten lehiaketan Aldi Baterako Enpresa Elkartearen parte hartu nahi duten enpresek ABEEa eratzeko konpromiso irmoa sinatu beharko dute, esleipendun izanez gero. Dokumentu hori aldi baterako elkarte gisa lizitatzen duten enpresetako ordezkariak sinatu beharko dute.

12.- LEHIAKIDEEN KAUDIMEN-BALDINTZAK

12.1.- Ekonomia eta finantza-kaudimena bi modu hauetakoren batean egiaztatu ahal izango da:

Lehenengoa: lizitazailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumenak hau baino handiagoa izan beharko du amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez:

56.000 € x 1,0 aldiz = 56.000 euro.

Bigarrena: arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen 750.000 euroko aseguru bat indarrean edukiz, eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte, edo, esleipenduna izanez gero, eskatutako asegurua izenpetzeko konpromiso loteslea hartuz. Konpromiso hori SPKLren 150.2 artikuluan aurreikusitako hamar egun balioduneko epean gauzatu beharko da.

Lehiaketa-fasean, baldintza hori betetzat joko da, baldin eta hautagaiak bere eskaintzan eskatzen den asegurua sinatzeko konpromiso lotesle hori jasotzen bada, ondorengo prozedura negoziatuaren esleipendun suertatuz gero.

12.2.- Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren betekizunak:

Gutxienez goi mailako arkitekto batek osatuko du taldea, eta legez gaituta egongo da lanbidean jarduteko. Espainiako lurraldean jarduteko legez ahaldundutako tituluduntzat jotzen dira dagokion titulua dutenak, bai espainiarra, bai legez aitor daitekeena (Europar Batasuneko tituluak) edo espainiarrarekin homologatua. Lehiaketaren xedearekin bat datozen helburu sozialak dituzten pertsona juridikoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta taldeko zuzendaria edo lanak zuzentzeaz arduratuko dena goi mailako arkitekto bat bada; arkitekto hori arduratuko da kontratua gauzatzeko eta Udalarekin solaskide izango da. Eskakizun hori funtsezko baldintzat hartzen da ondorengo zerbitzu-kontratua gauzatzeko; beraz, hori ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarriko du.

IV.- PROZEDURA ETA ESLEIPENA

13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

13.1.- Ez da beharrezkoa alde zurretik izena ematea. SPKLren 183. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, prozedura irekiko arauen arabera esleituko da kontratua, proiektu-lehiaketa moduan.

13.2.- SPKLren 15.3 d) xedapen gehigarriaren arabera, eskaintzak ez dira bitarteko elektronikoz aurkeztuko, eredu fisikoak aurkeztu behar baitira.

13.3.- Proposamenak Gizaburuagako Udaleko Erregistroan entregatuko dira, helbide honetan:

Eleizaldea 2, 48289 Gizaburuaga (Bizkaia)

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, interesdunak bidalketaren ezarpen-data egiaztatu beharko du, dagokion frogagiriarekin, eta proposamena bidali dela jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, adierazitako epea amaitu baino lehen. Jakinarazpen hori faxez, telexez edo telegramaz egin ahal izango da, edo **idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org** helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz; hala ere, igorpena eta harrera jasota badago, datak jasota badaude eta komunikazioen eduki osoa jasota badago bakarrik izango da baliozkoa. Nolanahi ere, komunikazio horrek ezin du hautsi proposamenak aurkezteko prozesu osoan indarrean dagoen anonimotasuna; LELO bidez soilik identifikatu ahal izango da. Horretarako, deskribatutako edozein bide (faxes, telexa edo telegrama) erabili beharko da, lehiakidearen nortasuna identifikatu gabe. Baldintza horiek bete ezean, proposamena ez da onartuko lizitazio-iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen bada.

Nolanahi ere, epea amaitu eta hamar egun natural igarotakoan, ez da onartuko postaz bidalitako proposamenik. Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, eta posta bidezko proposamenik ez badago, epaimahaiari deituko zaio, hurrengo fasera igaroko diren leloak aukeratzeko.

13.4.- Eskatzen den informazio gehigarria Udaleko **idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org** helbide elektronikokoaren bidez emango da, gehienez ere eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 6 egun lehenago, baldin eta interesdunek proposamenak aurkezteko epea baino gutxienez 12 egun lehenago eskatu badute informazioa. Eskatutakoa baldintza-agirietan edo gainerako agirietan ezarritakoari buruzko argibideak badira, erantzunak lotesleak izango dira, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

13.5.- Lehiaketa bi fasetan egingo da: lehenengoa, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik HILABETE BATEKO epean aurkeztu beharko diren ideiena, eta bigarrena, aurreproiektu mailan, hautagaien hautaketa kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik HILABETE BATEKO epearekin.

13.6.- Lehenengo fasean bost parte-hartzaile hautatuko dira, hautaketa-irizpideen puntuazioaren %50 gainditu badute betiere. Ideiak hautatu ondoren, bigarren faseari dagokion aurreproiektua aurkezteko deia egingo zaie onartutakoei. Hilabeteko epea

izango dute, hautaketa kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik hasita, eta posta elektronikoz jakinaraziko zaie hautatutako leloei.

13.7.- Bigarren fasean, irabazlea hautatuko da, eta hari esleituko zaio zerbitzu-kontratua, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

14.- IRIZPIDEAK ETA BALORAZIO-FASEAK

14.1.- Eskaintzen balorazioa faseka egingo da, eta lehenengo fasean ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu beharko da bigarren fasera pasatzeko. Administrazioak kalitate handienekotzat jotzen duen eskaintzari esleituko dio kontratua.

Eskaintzek 100 puntu lortu ahal izango dituzte gehienez, honela banakatuta:

- a) Proposamen teknikoa. Proposamenaren arkitektura-egokitasuna eta irtenbide teknikoa. Arkitektura eta egitura-esku-hartzearen kalitatea, nortasunaren kanpo-elementuak eta ingurunearekiko egokitzapena eta integrazioa, hirigintza-baldintzak, pertsonen eta objektuen irisgarritasun- eta mugikortasun-baldintzak, proposamena obra egingo den espaziorako aurreikusitako funtzioetara egokitzea, baldintza estetikoak eta bideragarritasun teknikoa baloratuko dira, 70 puntu arte.
- b) Proposamenen bideragarritasun ekonomikoa eta justifikazioa, 20 puntu arte.
- c) Instalazioetan jasagarritasun-neurriak ezartzea, ondorengo mantentze-neurriak minimizatzea, energia aurrezteko neurriak ezartzea, ekonomia eta kalteak konpontzeko erraztasuna sustatzea, 10 puntu arte.

Epaimahaiak lehiaketa hutsik uztea proposatu ahal izango du, proposamenek gutxienez 50 puntuko balorazioa lortzen ez badute.

14.2.- Epaimahaiaren irizpena ezagutu ondoren, eta SPKLren 187.5 artikuluan aipatzen den sailkapenaren eta aktaren edukia kontuan hartuta, kontratazio-organoak esleipena egingo du.

14.3.- Proiektu-lehiaketa esleitu ondoren, kontratazio-organoak publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bat irekiko du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 168 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektua (oinarrizkoa eta gauzatzekoa) idazteko eta, hala badagokio, obra-zuzendaritzarako zerbitzu-kontratua esleitzeko.

14.4.- Parte hartzen duten eskaintzetako lehenengoarekin lehiaketaren eta zerbitzu-prestazioaren esleipen hori egitea ezinezkoa bada, zerbitzu-kontratua bigarren edo, hala badagokio, hirugarren eskaintzarekin esleitzeko prozedura bultzatu ahal izango du alkateak.

15. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. FASEA.- Ideia-lehiaketa

15.1.- Proposamenak modu anonimoan aurkeztuko direla bermatzeko, gutun-azal guztiak anonimoak izango dira, eta lehiakideen nortasunaren ordeztu **lelo edo izengoiti bat jarriko da, gutun-azalen kanpoaldean** eta barruko dokumentu guztietan. Leloa **gutxienez bi hitz** izango dira, eta lizitatzailleak askatasunez aukeratu dituzte.

15.2.- Bigarren fasean parte hartuko duten lehiakideak hautatzeko lehenengo faseko aurkeztu beharreko dokumentazioa pakete itxi batean aurkeztuko da, kanpoan "Gizaburuagako pilotalekua birgaitzeko proiektu-lehiaketa" adieraziz, eta lehiakideek anonimotasuna zaintzeko aukeratu duten leloa edo izengoitiarekin.

15.3.- Paketea enbalaje opaku eta itxian aurkeztuko da, eta bi gutun-azal itxi edukiko ditu, bakoitzean lehiakideak aukeratu dituzten leloarekin. Baldintza hauek bete beharko dituzte:

□□1. GUTUN-AZALA:

Kanpoaldean, **1. gutun-azala** agertuko da: "Gizaburuagako pilotalekua birgaitzeko lehiaketa – Administrazio-dokumentazioa". Era berean, lehiakidearen leloa edo izengoitia agertuko da, eta **kanpoan ere komunikaziorako helbide anonimoa adieraziko da, leloarekin** (adb.: leloa@gmail.com; leloa@hotmail.com edo baliokideak).

Bigarren fasean aurkeztutako aurreproiektuen balorazioa argitaratu ondoren epaimahaiak irekiko duen gutun-azal horretan, dokumentu hauek sartuko dira:

1) Erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskineko ereduaren arabera. Adierazpena jatorrizko sinadurarekin aurkeztuko da.

Goi mailako arkitekto-titulu edo baliokide jatorrizkoa, fotokopia konpultsatua edo fotokopia sinplea –edo, hala badagokio, eskatu izanaren eta dagozkion tasak ordaindu izanaren frogagiria– erantsiko da.

2) ABEE kasuan, II. eranskineko eredu, esku-hartzaile guztien jatorrizko sinadurarekin.

3) Hala nahi izanez gero, lizitatzailleak datu konfidentzialesi buruzko VI. eranskina sartuko du, jatorrizko sinadurarekin.

□□2. GUTUN-AZALA: Kanpoan honako hau adierazi beharko du: "2. gutun-azala: Proposatutako ideia – Gizaburuagako pilotalekua birgaitzeko lehiaketa". Itxita eta **kanpoan lehiakidearen leloarekin identifikatuta** aurkeztuko da. Barruan honako agiri hauek sartuko dira:

Arkitekto edo talde lehiakide bakoitzak bere proposamenaren ale bat emango du, eta honako hauek jaso beharko ditu:

a) Memoria, gehienez bost (5) DIN A-4, alde batetik, paperean, honako eduki honekin:

1. Hartutako irtenbidearen deskribapena.
2. Arkitektura, egitura eta instalazio-elementu berezien deskribapena.
3. Erabilitako akaberetako materialen deskribapena.
4. Proposamenaren eta ingurumenaren arteko integrazio energetiko, funtzional eta egiturazkoaren deskribapena.
5. Kostu globalaren balioespen estimatua.

b) Definizio grafikoa, gehienez bi (2) DIN A-3, alde batetik, paperean, egindako proposamena adieraziz.

15.4.- Adierazitako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira. Era berean, automatikoki baztertzeko arrazoi izango da aurkeztutako edozein dokumentutan parte-hartzailearen edozein identifikazio mota agertzea. Dokumentu guztiak enpresa parte-hartzailea identifikatu ahal izateko zeinu bereizgarririk gabe aurkeztu beharko dira.

2. FASEA.- Aurreproiektu-lehiaketa

15.5.- Bigarren faserako hautatutako hautagaiak aurkeztu beharreko dokumentazioa gutun-azal edo pakete bakar batean aurkeztuko da, eta kanpoaldea titulu hau agertuko da: "**Dokumentazio teknikoa – Gizaburuagako pilotalekua birgaitzeko lehiaketako aurreproiektua**".

Gutun-azala itxita eta **kanpoaldea** lehiakideak lehen fasean aukeratutako leloarekin **identifikatuta** aurkeztuko da. Paketeak edo gutun-azalak honako hauek edukiko ditu:

a) PANELAK

Bi (2) panel aurkeztuko dira DIN A-2n, euskarri zurrunean (kartoi-luma). Proiektugilearen iritziz proposamena behar bezala definitzeko beharrezkoak diren plano guztiak aurkeztuko dira, baita, hala badagokio, ingurunearekin, grafismoekin eta aurkezpen libreko teknikekin duten harremana deskribatzen dutenak ere. Planoak eskala definituan eta erabilera erkideko eskalan irudikatuko dira, eta eskala grafikoa sartuko da. Infografiak, perspektibak edo proposamena azaltzen duen beste edozein adierazpen grafiko onartuko dira. Dokumentazio guztia, grafikoa zein idatzizkoa, bi (2) DIN A-2 bi paneletan jasoko da, eta ezingo da dokumentazio gehiago aurkeztu.

b) DOKUMENTAZIOAREN CD-A

CD bat erantsiko da .pdf edo .jpg panelen erreprodukzioarekin (leloaren izenarekin eta panel-zenbakiarekin, eta ez 5 MB-tik gorakoa bakoitza, eta gehienez 300 dpi-ko bereizmenarekin.).

16. ANONIMATUA

16.1.- Lanak parte-hartzaileek askatasunez aukeratutako leloarekin aurkeztuko dira; leloa dokumentu guztietan agertuko da, epaimahaiak anonimotasunez azter ditzan.

16.2.- Leloa libreki aukeratu ahal izango du lehiakideak, baina ezin izango du bere izenarekin edo taldekideen izenarekin bat etorri, ezta horiek identifikatzen utzi ere. Leloak bi hitz edukiko ditu gutxienez, eta lizitatzailak askatasunez aukeratuko ditu.

16.3.- Lehiakideek konpromisoa hartzen dute, beren proposamena aurkezte hutsagatik, proposamena ez zabaltzeko, ez beren kabuz, ez taldeko edozein kideren bidez, epaimahaiaren erabakia baino lehen, anonimotasuna bermatzeko eta lehiaketaren objektibotasuna zaintzeko. Konpromiso hori betetzen ez bada, proposamena berehala deskalifikatuko da.

16.4.- Lehiakideek ezingo dute lehiaketaren inguruko komunikaziorik izan epaimahaikideekin. Eskakizun hori urratzen duten proposamenak baztertu egingo dira.

16.5.- Anonimotasuna bermatzeko eta gordetzeko, dokumentazioa edozein posta edo mezularitza-zerbitzuren bidez bidaltzen bada, ezinbestekoa izango da bidalketaren arduradunekin argitzea gutun-azal edo paketeetan ez duela agertu behar igorlearen izena jasotzen duen zigiluk edo fitxa itsaskorrik, ezta haren nortasuna adieraz dezakeen daturik ere.

17.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

1. FASEA

17.1.- Proposamen guztiak jaso ondoren, 2. gutun-azalean jasotako proposamen guztiak epaimahaikideek aztertzeko moduan egongo dira. Epaimahaiak hilabeteko epea izango du, eratzen denetik, guztiek sinatutako txostena egiteko, proposamenak sailkatzeko eta Alkatetzari helarazteko. Aurkeztutako lanen kopuruagatik ezinezkoa bada epea betetzea, beste ebazpen-data bat iragarriko da kontratatzailearen profilean.

17.2.- Epaimahaiko idazkariak egindako jarduketa guztien akta egingo du, eta eztabaidak isilpekoak izango dira epaimahaikide guztientzat.

2. FASEA

17.3.- Hautagaiak lelopean aukeratuta, kontratazio-organoak aurreproiektua aurkezteko gonbidapena egingo die bost onenei, hilabeteko epean. Kontratatzaileren profilean argitaratuz eta parte-hartzaileek lelopean aurkeztutako helbide elektronikoan jakinaraziz egingo da gonbidapena.

17.4.- Aurreproiektuak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean, aurkeztutako aurreproiektuei buruzko bere irizpena emango du epaimahaiak. Epe horretan, epaimahaiak proposamen teknikoaren balorazioa egingo du, eta lehiaketaren epaiaren akta egingo du. Akta hori kontratatzailearen profilean argitaratuko da, irizpen arrazoitua jasoko du, eta epaimahaikide bakoitzak bere aldetik adierazi ahal izango ditu bere botoaren arrazoiak.

17.5.- Epaimahaiaren erabakia ezagutu ondoren, lehenengo saria irabazi duen proposamenaren, gainerako hautagaien eta bideraezintzat jotako proposamenen administrazio-dokumentazioko gutun-azalak irekiko dira (1. gutun-azala), baztertze-egintza jakinarazteko.

17.6.- Aurkeztutako lanen kopuruagatik ezinezkoa bada epe hori betetzea, egoera hori kontratatzailearen profilean iragarriko da, eta lehiaketako sariak esleitzeko beste data bat iragarriko da.

18.- LEHIAKETAREN ESLEITZEA ETA SARI-EMATEA

18.1.- Kontratazio-organoak epaimahaiaren proposamenarekin bat etorritz esleituko du lehiaketa, eta oinarrizko proiektua eta exekuzio-proiektua idazteko zerbitzua esleitzeko prozedura negoziatuari ekingo dio, baita zuzendaritza fakultatiboari ere, hala badagokio, SPKLren 168.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Sariak emateko, nahitaezkoa izango da nahitaezko dokumentazioa sartu izana, dokumentazioa zuzena izatea eta kontratatze gaitasuna egiaztatzea, kontratatze debekurik ez egotea eta lizitazio honetan adierazitako gainerako baldintzak betetzea.

18.2.- Kontratazio-organoak ikusten badu saritutako proposamenen batek aurkeztutako administrazio-dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak daudela, interesdunei jakinaraziko die, hiru egun balioduneko epean akats horiek zuzen ditzaten.

18.3.- Lehenengo saria irabazi duen proposamenaren lizitatuak ez baditu baldintzak betetzen edo akatsak zuzentzen ez baditu, kontratazio-organoak ondoriorik gabe utziko du epaimahaiaren epaia, eta hutsik uzteko eskubidea izango du, epaimahaiari entzun ondoren. Hala badagokio, lehiaketa hurrengo sarituari esleitu ahal izango dio, epaimahaiak aktan ezarritako zerrendaren hurrenkeran, eta hurrenkeran horretan egingo da, oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen badira betiere. Sarituetako batek ere ez baditu baldintzak betetzen, lehiaketa hutsik geratuko da.

18.4.- Kontratazio-organoak, 16.2 atalean zehaztutakoaren kalterik gabe, lehiaketa irabazten duen lehiakideari eta sarituei eskatuko die errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun balioduneko epean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duten agiriak eta bidezkoak direnak aurkezteko.

18.5.- Irabazleak honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

- a) Parte-hartzailearen edo horren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala.
- b) Pertsona juridikoen kasuan, eratzeko edo aldatzeko eskritura, dagokion erregistro ofizialean bezala inskribatuta.
- c) Hala badagokio, ahalordetze-eskritura, sozietate edo erakunde baten izenean parte hartuz gero.
- d) Eskatzen diren kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren egiaztagiria.

- e) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (edo, hala badagokio, dagokion mutualitatean alta emanda dagoela egiaztatzen duena, eta ordainketaren egiaztatzea).
- g) Uneko ekitaldiari dagokion alta edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria. Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta salbuespen-kasua adieraziko du (VI. eranskineko ereduaren arabera).
- h) Hala badagokio, eskaintzan proposatutako gutxieneko langileekin duen lan-harremana, enpresaren TC2 agirien fotokopia konpultsatuta aurkeztuta.
- i) Arrisku profesionalengatik erantzukizun zibileko aseguruaren izatearen egiaztatzea. Eta titulazio akademikoaren fotokopia eta arkitektoen elkargo ofizialak emandako ziurtagiria, lehenago aurkeztu ez bada.

18.6.- Dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua kontratazio-organoak. Esleipen-ebazpena hautagaiei eta lizitatzailerik jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da hamabost eguneko epean.

19.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

19.1.- Esleipena jakinarazten denetik 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da kontratua.

19.2.- Kontratua formalizatzeko dokumentua administratiboa izango da, eta titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratua eskritura publikoan formalizatu da kontratistak hala eskatzen bada; horren kontura izango dira kontratua emateak dakartzen gastuak, eta kontratuaren lehen kopia eman beharko dio kontratazio-organoari.

19.3.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua epe horretan formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren (BEZa kanpo) ehuneko 3 eskatuko zaio, zigor gisa, eta, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko da, berme hori eratu bada, 71. artikularen 2. zenbakiko b) letran ezarritakoaren kalterik gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzailerik sarituari esleitu ahal izango zaio, aurreko atalean adierazitako baldintzetan.

19.4.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, berandutzeak sor diezazkiokeen kalte-galeren ordaina emango zaio kontratistari.

20.- ORDAINTZEKO MODUA

Kontratazio-organoak entrega-faseen proposamenean epemuga bakoitzari dagokion faktura aurkeztu eta hurrengo 30 egunen barruan ordaindu beharko ditu minutak, SPKLren 198. artikuluan xedatutakoaren arabera.

21.- ZERBITZU-EMATEAREN KONTRATAZIO-BALDINTZAK

21.1.- Lehiaketaren irabazleak proiektuak idazteko enkargua jasoko du, oinarritzkoa eta gauzatzekoa, baita obraren zuzendaritza fakultatiboa ere, hala badagokio.

21.2.- Proiektuak idaztean, horiek gainbegiratu eta onesteko ardura duten erakundeek eskatzen dituzten edukiak, dokumentuak, zehaztapenak eta aldaketak jaso beharko dira. Proiektuak Eraikuntzaren Kode Teknikoan eta nahitaez bete beharreko gainerako arauetan ezarritako dokumentazio gutzia jasoko du.

21.3.- Negoziazio-prozesua oinarri hauetan eta proiektua idazteko zerbitzu-kontraturako egiten den pleguan ezarritako alderdi guztiei buruzkoa izango da. Sailkatutako lehen lehiakidearekin akordiorik lortzen ez bada, jarraian sailkatu diren lehiakideekin negoziatu ahal izango da. Kasu horretan, zerbitzuak emateko kontratuaren esleipendun ez den lehiakideak jasoko du saria eskudirutan.

21.4.- Lehiaketaren irabazleak eta proiektua idazteko eta obra zuzentzeko kontratuaren ondorengo esleipendunak ezingo ditu proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko lan horiek laga edo azpikontratatu. Proiektua idazteko eta obra gauzatzeko prozedura negoziatua kontratatzen ez bada, gerora sortutako arrazoiengatik (ekonomikoak, plangintza egokitzeak edo kontratazio-organoaren iritziz aurrera jarraitzea eragozten duten beste arrazoi batzuegatik), lehiaketaren irabazleak ez du eskubiderik izango lortu gabeko irabazien kontzeptuan inolako kopuru gehigarriak jasotzeko.

21.5.- Udalak epaimahaiak iradokitako proiektu-aldaketak edo, kontratazio-organoaren iritziz, kontratazioaren unean arrazoi tekniko, ekonomiko edo bestelakoengatik behar diren beharren eta helburuen arabera beharrezkoak izan daitezkeen xehetasun eta programa-aldaketak eskatu ahal izango dizkio adjudikaziodunari, baldin eta aldaketa horiek ez badute nabarmen aldatzen irabazlearen ideia. Esleipendunak Udalak ezarritako aldaketak onartzen ez baditu, esleipendunak atzera egingo du kontratuan, eta ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

22.- JABETZA INTELEKTUALA

22.1.- Saritutako lehiakideek Udalari lagako dizkiote lehiaketara aurkeztutako proposamenak ustiatzeko, erreproduzitzeko, erakusteko eta argitaratzeko eskubideak, jabetza intelektualari buruzko legeriarekin bat etorritik eta nazio eta nazioarte mailan.

22.2.- Egileek aurkeztutako lanen jabetza intelektualari eutsiko diote –egiletza, obraren originaltasuna eta oinarri hauetan adierazitako lagatutako eskubideen egikarritza osoa–, eta horietako bat bera ere, ezta sarituak ere, ezingo da erabili oinarri horietan adierazitako helburuetarako ez bada, ezta egileez bestelako arkitektoek edo ingeniariak beste proiektu batzuk idazteko material gisa ere.

22.3.- Lehiaketan parte hartzen duten guztiek Udalarari lagatzen dizkiote dagozkien ustiapen-eskubideak, deialdiaren eta emaitzen publizitatea egiteko, hala nola aurkeztutako lanak argitaratzea, zabaltzea eta erakustea. Hala ere, anonimoan gordeko dira hala eskatu duten saritu gabeko parte-hartzaileak.

22.4.- Saritutako parte-hartzaileek ezin izango dituzte kontratazio-organoaren berriazko baimenik gabe erabili edo zabaldu lehiaketan parte hartzeagatik egindako azterlanak eta dokumentuak, ez partzialki ez osorik.

22.5.- Exekuzioa Udaletik kanpoko hirugarren batek egingo balu, hirugarrenaren alde laga ahal izango ditu lehiaketa irabazi duen lehiakideak aurkeztutako lanaren gainean eskuratutako eskubideak.

23.- JENDAURREAN JARTZEA

23.1.- Lehiaketa ebatzi ondoren, aurkeztutako eta onartutako lan guztiak jendaurrean jarri ahal izango dira, horien jatorria eta egiletza aipatuta, eta erakusketa amaitu arte atxiki ahal izango dira. Erakusketa hori parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie, beren proposamenak hautatuak izan edo ez. Web bidez ere zabaldu ahal izango dira, eta tamaina murrizteko bakarrik manipulatu ahal izango dira, hobeto nabigatzeko.

23.2.- Jendaurrean jarri ondoren, lehiakideek onartutako lanak erretiratzeko eskubidea izango dute, hilabeteko epean; epe horretatik aurrera, deitzaileak lanak suntsitu ahal izango ditu.

24.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN BABESA

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek isilpean gorde beharko dute, oro har, lehiaketa dela-eta eskura dezaketen informazioa. Udalak alde aurretik idatzizko baimenik eman ezean, ezingo dituzte argitaratu lehiaketaren xede diren obren albisteak, marrazkiak eta/edo argazkiak, ezta hirugarrenei horiek argitaratzeko baimenik eman ere. Aipatutako betebeharrak ez betetzea berriaz ezartzen da kontratua suntsiarazteko arrazoi gisa.

Datu pertsonalak babesteari dagokionez, IV. eranskinean, SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian eta horrekin bat datozen xedapenetan, eta Datuak Babesteko Europako Erregelamenduan xedatutakoa beteko da.

Lizitatzzaileak konfidentzialtzat joko den informazioa identifikatuko du aurkezten duen dokumentazio guztian, SPKLren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ERANSKINAK

I.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

II.- ENPRESEN/PROFESIONALEN ALDI BATERAKO ELKARTEA (ABEE)
ERATZEKO KONPROMISOA

III.- ASEGURU-ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRI-EREDUA

IV.- DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

V.- ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL
IZENDATZEKO EREDUA

VI.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN AITORPEN-EREDUA

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA

.....jaun/andreak, helbidea
.....(e)n eta NAN
zenbakia..... dituenak, bere izenean edo helbide soziala
.....(e)n, IFK,
tel....., eta posta elektronikoko helbidea
..... dituen enpresaren (ordezkaritza-
ahalmenak adierazi: administratzaile bakarra, ahalduna) eta ordezkari gisa, prozedura
ireki bidez izapidetutako IZABURUAGAKO PILOTALEKUA BIRGAITZEKO
EPAIMAHAIAREN ESKU-HARTZEAREKIN EGINDAKO PROIEKTU-
LEHIAKETAREN jakitun,

ESKATZEN DU lehiaketa horretan parte hartu ahal izatea; **proposamenaren leloa**
.....da, etaleloarekin erlazionatutako
jakinarazpen anonimoetarako helbide elektronikoa, berriz,
(adibidez: leloa@gmail.com edo baliokidea)

ETA BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

- a) Jarduteko gaitasun osoa duela eta lehiaketa arautzeko onartutako oinarriak ezagutzen eta onartzen dituela.
 - b) Eskatzaileak edo ordezkatzeko duen enpresak lehiaketan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, eta ez duela Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik.
 - c) Baimena ematen diola Gizaburuagako Udalarari oinarri hauetan aipatzen diren informazio eta ziurtagiriak zerga-administrazioetatik eta Gizarte Segurantzatik eskuratzeko, baldin eta lehiaketan irabazle suertatzen bada edo bigarren faserako hautatua eta hautatuentzat aurreikusitako sariaren esleipenduna bada.
 - d) - Pertsona fisikoa izanez gero, goi mailako arkitekto-titulua edo baliokidea duela.
- Pertsona juridiko bat ordezkatzuz gero, adierazten du bere jardueraren helburuak, xedea edo eremua bat datozela lehiaketa honetan eskatzen diren prestazioekin, bere estatutuetan edo sorrerako arauetan xedatutakoaren arabera. Bi kasuetan, jatorrizko goi mailako arkitekto titulua edo baliokidea, horren fotokopia konpultsatua edo fotokopia sinplea edo, hala badagokio, eskatu izanaren (eta dagozkion tasak ordaindu izanaren) egiaztatzea erantsi ditu.

e) ATZERRIKO ENPRESEN KASUAN: Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela berariaz, oinarri hauetatik eratorritako interpretazio, aldaketa eta ebazpenari buruz sor daitezkeen auzi guztietan.

g) Honako hauek direla GIZABURUAGAKO PILOTALEKUA BIRGAITZEKO EPAIMAHAIAREN ESKU-HARTZEAREKIN EGINDAKO PROIEKTU-LEHIAKETAN Legeak ezarritako ondorio juridikoekin egin beharreko era guztietako errekerimendu, komunikazio eta jakinarazpenetan erabiltzeko datuak:

Harremanetarako Helbide pertsona:
..... Helbide soziala:
PK.....
Udalerrria.....
Telefonia..... Abisuak emateko posta elektronikoa
.....

h) Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da ABEEko kide bakoitzeko, eta II. eranskinean aipatzen den konpromisoa jasoko da.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du,
..... (e)n, (e)ko.....ren
.....(e)(a)n.

Sinatzailea: -----

II. ERANSKINA

ENPRESEN/PROFESIONALEN ALDI BATERAKO ELKARTEA (ABEE) ERATZEKO KONPROMISOA.

GIZABURUAGAKO PILOTALEKUA BIRGAITZEKO EPAIMAHAIAREN ESKU-HARTZEAREKIN EGINDAKO PROIEKTU-LEHIAKETAREN deialdiaren jakitun:.....jaunak/andreak, NAN

.....duenak,(r)en izenean eta horren ordezkari gisa, aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzeko konpromisoa hartzen dute, baldin eta proposamena lehiaketa horretan irabazle suertatzen bada. Horretarako, ABEE osatuko duten kide guztien partaidetza-portzentaje hauek adostuko dituzte:

Izen-abizenak eta IFZ, ABEEan duten partaidetza-ehunekoa (%).

Halaber, jauna/andrea, IFZ..... duena, deialdia egin duen administrazioaren aurrean ordezkari eta solaskide bakar izendatzea erabaki dute, jakinarazpenetarako honako datu hauekin: Helbidea:

.....PK.....Kalea/Plaza.....
...Telefono finkoa Telefono mugikorraPosta elektronikoa

..... Eta horrela jasota gera dadin, aipatutako lehiaketan parte hartzeko, honako adierazpen hau sinatzen dute: (enpresen ordezkari guztiek)

.....(e)n, 202 (e)ko.....ren.....(e)(a)n.

Sinatzailea

III. ERANSKINAASEGURU-ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRI-EREDUA

(lehen sariaren irabazleak bakarrik aurkeztu beharrekoa)

(Aseguru-erakundea)(e)k, bulegoa
.....(e)n eta IFZ dituenak eta
.....(e)ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoenak.

ZIURTATZEN DU:

.....jaunak/andreak//edo.....
.....enpresak, helbide soziala.....(e)n eta IFZ
..... dituenak,.....zk. duen aseguru-
poliza duela kontratatuta, indarrean eta ordainduta dagoela GIZABURUAGAKO
PILOTALEKUA BIRGAITZEKO EPAIMAHAIAREN ESKU-HARTZEAREKIN
EGINDAKO PROIEKTU-LEHIAKETA arautuko duten oinarrietan ezarritakoaren
arabera, eta lehen sariaren irabazle izan dela lehiaketa horretan.

.....(e)n, 202 (e)ko.....ren.....(e)(a)n.
(Aseguru-erakundeak)

Sinatzailea:

IV. ERANSKINA DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

1 Konfidentzialtasuna

Enpresak edo esleipendunak (datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik) eta horren langileek, osotasun eta konfidentzialtasun-printzipioak betez, segurtasun egokia, baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduaren aurkako babesari eta tratamendu horren galera, suntsiketa edo ustekabeko kaltearen aurkako babesari barne, bermatzeko moduan tratatu behar dituzte eskura dituzten datu pertsonalak, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzko 2016/679 Erregelamenduan (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra) ezarritakoaren arabera egokiak diren neurri teknikoak edo antolakuntzakoak aplikatuz.

Betebehar hori sekretu profesionalaren betebeharren osagarri da, eta indarrean jarraituko du, nahiz eta datuak tratatzeko arduradunarekin (Udala) kontratua amaitu.

2 Datuen tratamendua

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan eta Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, pertsona eta erakunde lizitatzailerei jakinarazten zaie Udala honek tratatuko dituela euren eskaintza eta kontratazioa egiteko beharrezko diren gainerako agiriak aurkeztuz jasotzen diren izaera pertsonaleko datuak, kontratuaren garapena behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatzeko.

V. ERANSKINA

**ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL
IZENDATZEKO EREDUA** (lizitatzailleek aurkeztu beharrekoa, beharrezkoa joz gero)

.....jaun/andreak, helbidea
.....(e)n,kalean eta
NAN.....ditudanak, neure izenean/helbide
soziala.....(e)n,..... kalean,
PK Tel..... eta IFK.....
dituen.....enpresaren izenean AITORTZEN
DUT: GIZABURUAGAKO PILOTALEKUA BIRGAITZEKO EPAIMAHAIAREN
ESKU-HARTZEAREKIN EGINDAKO PROIEKTU-LEHIAKETAN aurkeztutako
dokumentuetatik konfidentzialak direla eskaintzaren informazio eta dokumentu hauek,
sekretu tekniko edo komertzialei eragiten dietelako (edo, hala badagokio,
konfidentziasuneko beste arrazoren batengatik) (adierazi zein orrialdetan dauden)
.....
.....
.....

.....(e)n, 202 (e)ko.....ren.....(e)(a)n.

Sinatzailea

OHARRA: Konfidentziasun-adierazpena ezin izango da enpresak aurkeztutako dokumentazio osora hedatu. Kasu horretan, edo deklarazio hori behar ez bezala dimentsionatzen bada, kontratazio-organoak erabakiko du zer datuk eta/edo dokumentuk merezi duten izaera hori.

VI. ERANSKINA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGAREN AITORPEN-EREDUA (proposatutako esleipendunak aurkeztu beharrekoa)

.....jaun/andreak, helbidea
..... eta NAN zenbakia.....
duenak, bere izenean edo helbide soziala
.....(e)n eta IFK
dituen enpresaren (ordezkaritza-ahalmenak adierazi:
administratzaile bakarra, ahalduna) eta ordezkari gisa

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

1.- Tokiko tributazioaren arloan aplikatu beharreko indarreko araudiaren arabera, eta, zehazki, ekonomia-jardueren gaineko zerga arautzen duenaren arabera, zerga honen matrikulan honako epigrafe hauetan alta emateko aitorpena aurkeztu behar duela, eta ez duela baja eman gaurko egunean honako Epigrafe honetan:-----

2.- (Adierazi dagokion aukera) Zerga ordaintzera behartuta dagoela eta azken ordainagiri erkatu(ar)en kopia(k) erantsi dituela. Salbuetsita dagoela ondorengo arrazoi honengatik:

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du,

.....(e)n,(e)koaren.....(e)(a)n.

Sinatzailea

DOKUMENTU HAU UDALBATZAK 2020KO MARTXOAREN 11 EGINDAKO
BILKURAN ONARTUA IZAN DA.

Iz: Idazkariak, M^a Pilar Eizagirre Murelaga